Gaur goizean egunkariaren orriak irakurri bitartean, zuen iragarkia topatu dut, eta erabaki dut ahalik eta azkarren zuek nire berri izatea zeren eta interes handia baitut hautaketa prozesuan parte hartzeko.

Igor izena daukat, 42 urteko mutil langile eta proaktiboa. Gaur egun, egiten dut lanaldi erdia Gasteizeko jatetxe ezagun batean, normalean gauez, astelehenetik ostiralera 20:00 etatik 01:00 etara. Denbora luze daukadanez gero goizez, aprobetxatzen dut alde batetik errezeta berriak asmatzeko nire sukaldean, eta beste aldetik, asteartero zein ostegunero bertaka eta garaiko produktuak sukaldatzeko ikastaroa gauzatzeko. Horrez gain, azpimarratu nahiko nuke eskarmentua faktore

garrantzitsua dela sukaldaritzaren munduan, eta ikuspuntu harretatik, badira 20 urte baino gehiago ematen dudala suen artean. Gainera, Euskal Herriko jatetxeetan ez ezik aritu naiz, bai Japoniakoetan bai Mexikokoetan ere.

Aurrekoa kontuan hartuta, uste dut pertsonarik egokiena izango nintzatekeela eskaintzen duzuen lanposturako. Argi eta garbi dago ez dudala izango inolako arazorik lanpostu berrian moldatzeko. Lehen esan dudan bezala, proaktiboa naiz oso, eta nire formakuntzari eta esperientziari esker, ezaupide horiek eman diezazkioket enpresari. Eta bukatzeko, erronka berri bati aurre egiteak motibatzen nau ikaragarri, beraz, zuen proiektuaren partaide izan nahi dut.

Laster aurrez aurre hitz egiteko aukera izango dugulakoan, adeitasunez, agur.

Igor